


3.



GIDA PRAKTIKOAK:
erosketa publiko arduratsua

ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOA



GIDA PRAKTIKOAK
erosketa publiko arduratsua

ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOA

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak kofinantzatutako “*Merkatu Soziala, Erosketa Publiko arduratsua eta Kontsumo arduratsua*” proiektuaren barruan dago



Gida praktikoa: erosketa publiko arduratsua
3. Energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa

Egilea: Santiago Lesmes Zabalegui

ISBN:

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: Labox Marketing y Comunicación

Itzulpena: Éditra S.C.

Inprimaketa: Eusko Printing Service S.L.

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Red de Economía Alternativa y Solidaria

EKONOPOLO · Ekonomia Sozial eta Solidarioko Poloa

Harrobi Plaza 4, 2a · 48003 Bilbo · Tel.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.net · @REASEuskadi

www.reaseuskadi.eus



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 (CC BY-NC-SA 4.0)

Lan hau nahi bezala kopiatu, banatu eta zabaldu daiteke, egilea aipatu eta xede ez-komertziale-tarako erabiliz gero. Lan hau aldatuz gero edo lan honetatik abiatuta besterik sortuz gero, honek daukan lizentzia berarekin baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>.

Edukia

AURKEZPENA.....	05
1. ZER DA LEGEZKOA ETA ZER LEGEZ KANPOKOA ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIO PUBLIKOAN?.....	10
Zer da legez kanpoko?	10
1. Pobrezia energetikoaren aurkako klausulak	
2. Kontratuak erreserbatzea energia elektrikoa banatzen duten kooperatibei	
3. Elektrizitatearen etiketatzeari edo elektrizitatearen jatorriari buruzko esleipen irizpideak	
Frogatze-sistemak	14
Jatorri-bermeak	15
Elektrizitatearen etiketa	16
Orduan, zer da legezkoa eta zer irizpide gehi daitezke?	17
2. KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA	19
Kontratazio publiko arduratsua: legezko betebeharra	19
Kontratuaren objektua	20
Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea	22
3. % 100EAN ENERGIA BERREZTAGARRITIK ETORTZEARI BURUZKO KAUDIMEN TEKNIKOA	27
4. % 100 BERRIZTAGARRIA DEN ENERGIAREN HORNIDURAREN SORTA BAT EDO BATZUK EZARTZEA	32
5. ESLEIPEN IRIZPIDEAK.....	36
6. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK.....	40
7. KONTROLATZEKO ETA EGIAZTATZEKO SISTEMAK.....	45
% 100ean jatorri berriztagarria duen energiaren egiaztatzailea	47

Aurkezpena

Gida honen xedea da Administrazio publikoek energia elektrikoaren hornidura kontratatzean erantzukizun sozial eta ingurumeneko irizpideak sar ditzaten proposatzea eta erraztea.

Gida honen helburu nagusia berme legal eta tekniko guztiak dituzten klausulak zehaztea da, iturri berriztagarrietatik soilik datorren energia elektrikoaren hornidura kontratatu ahal izateko. Horretaz gain, modu osagarrian, beste irizpide sozial eta ingurumeneko batzuei buruz arituko gara.

Esparru zaila da hau eta espezifikotasun oso bereziak ditu. Horregatik, irizpide horiek lizitazio publikoetan nola sar daitezkeen ulertzeko, sektore elektrikoa labur-labur aztertuko dugu.

Espainiako estatuan 2018an ekoiztutako energiaren % 40k jatorri berriztagarria izan zuen.

2018an ekoiztutako energiaren iturri nagusiak hauek izan ziren: energia nuklearra (% 21,4), eolikoa (% 19,8), ikatza (% 14,5), hidraulikoa (% 13,7), kogenetazioa (% 11,6), gas bidezko ziklo

konbinatua (% 10,8), eguzki-energia fotovoltaikoa (% 3), eguzki-energia termikoa (% 1,8) eta beste berriztagarri batzuk (% 1,7).

Energia berriztagarriak hauek dira: hidraulikoa, hidroeolikoa, eolikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, biogasa, biomasa, itsas-energia hidraulikoa eta geotermikoa.

Espainiako mix energetikoa deritzenaren buruan energia nuklearra dago, eta ikatzak posizio oso nabarmena du ere. Noski, azken honek **CO2 eta beste gas kutsagarri batzuk isurtzen ditu**, eta lehenak hamar mila urtez gorde behar diren hondakin erradioaktiboak sortzen ditu. Bata zein bestea arriskuak dira gure osasunarentzat eta planetaren osasunarentzat.

Hemen energia berriztagarriak sartzen dira jokoan; izan ere, **erregai agorrezinak erabiltzen dituzte energia sortzeko eta ez dute ia eraginik ez ingurumenean ezta gure osasunean ere**. Ez da gida honen helburua gai horretan sakontzea, baina aspalditik energia horren kostuak berdinak edo txikiagoak dira. Gainera, enplegua sortzeko duen gaitasuna nabarmen handiagoa da.


2018AN ESPAINIAKO ESTATUAN EKOIZTUTAKO
ELEKTRIZITATEAREN % 40K JATORRI BERRIZTAGARRIA IZAN ZUEN



Eolikoa
% **19,8**



Hidraulikoa
% **13,7**




Eguzki-energia
termikoa eta
fotovoltaikoa
% **4,8**



Beste berriztagarri
batzuk
% **1,7**

Energia-sektorearen gizarte- eta ingurumen-gaitzei heltzeak autokontsumoa, eguzkia-
ren gaineko zerga, udal merkaturatzaile publikoak, de facto dagoen oligopolioa, tran-
sizio energetikoa edo ekonomia sozial energetikoaren eredua aipatzea ekarriko luke.
Dena den, ezin ditugu gai horiek joratu eta ez da gida honen helburua. Beraz, horni-
dura elektrikoaren kontratazio publikoan jarri behar dugu arreta, iturri berriztagarrieta-
tik datorren energiaren ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa bultzatuz, eta azken
helburua klima-aldaketari eta mehatxu nuklearrari aurre egiten laguntzea izanik.



Badakigu sarrera hau luze samarra izan daitekeela, baina lizitazio publikoetan sartu aurretik, ezinbestekoa da ulertzea nola funtzionatzen duen energia elektrikoaren hornidura-sistemak gure herrialdean. Orokorrean, lau fase nagusik osatzen dute prozesu hau:

1. **Energia sortzea:** energia elektriko ekoiztea. Espainiako estatuan, ohiko bost konpainia elektriko handiek sortzen den elektrizitate guztiaren % 65 inguru ekoizten dute. Eta lehenago aipatu dugun moduan, Espainiako estatuan sortutako energiaren % 40k jatorri berriztagarria du.
2. **Energia garraiatzea:** energia elektriko garraio saretik transmititzean datza, goi-tentsioko lineen bidez. Konpainia bakar bat arduratzen da garraioaz, monopolio erregimenean: Red Eléctrica Española (REE), sistema elektrikoaren operadorea ere badena. **Garrantzitsua da kontuan izatea sortutako elektrizitate guztia garraio sarean sartzen dela, garbia zikinarekin nahastuz, eta nuklearra berriztagarriekin.** Beraz, hemendik aurrera eta kontsumitzera iritsi arte, ezaugarri berdinak eta kalitate bera duen produktu bihurtzen da, eta ezinezkoa da kontsumitzen dugun energiaren jatorri zehatza identifikatzea.

3. **Energia banatzea:** garraio saretik kontsumo- eta hornidura-puntuetara (etxeak, erai-kinak edo enpresak) energia transmititzean datza. Banatzaileak arduratzen dira hornidura bermatzeaz, matxurak konpontzeaz eta kontagailuak irakurtzeaz.
4. **Energia merkaturatzea:** bere papera sorgailuei energia erostean datza, pool elektriko deiturikoan —handizkako merkatuan enkante moduko bat—, edo agente ekoizleekin aldebiko kontratuak eginez. Azkenik, bezeroei saltzen zaie **prezio itundu batean. Kontratazio publikoari heldzean aurrerago ikusiko dugun moduan, merkaturatzaileen papera garrantzitsua da iturri berriztagarrietatik datorren energia soilik kontratatzea erabaki dezaketelako..**

Energia-horniduraren erosketa publikoari dagokionez, lehen eta azken fasean soilik jarriko dugu arreta: ekoizpenean eta merkaturatzean. Txertatu beharreko klausulak enpresa ekoizleei eta enpresa merkaturatzaileei zuzenduko zaizkie. Eta horri dagokionez, hainbat gai nabarmendu behar ditugu, erabakigarriak izango baitira energia elektrikoaren horniduraren lizitazioak eta kontratazioak kontratu publikoen legediaren arabera tratatzerako orduan:

- Enpresa ekoizleek iturri desberdinetatik lor dezakete energia, berriztagarriak edo ez, eta jatorrian posible da jakitea bere ekoizpenaren zein ehuneko datorren iturri berriztagarrietatik. Era berean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) ziurtatu egiten du zein enpresak eskuratzen duen bere energiaren % 100 iturri berriztagarrietatik.
- Merkaturatzaileek askatasun osoa dute aukeratzeko zein enpresa ekoizleri erosi energia, eta erosketa hau bere jatorria ondo ezagututa egiten da. Hortaz, merkaturatzaileek energia % 100 berriztagarria eros eta sal dezakete.
- Bezeroek, publikoak zein pribatuak, ezin dugu aukeratu ezta jakin ere kontsumitzen dugun energia zehatza ikatzetik eta nuklearretatik datorren edo eguzki-energia edo eolikoa den % 100ean.

Komeni da oso argi izatea elektrizitatea ekoizten duten enpresek energia sareetara isurtzen dutela eta sistemak igerileku baten moduan funtzionatzen duela (*pool* ingelesez, hortik *pool elektrikoa* kontzeptua). "Igerileku" honetan energia mota desberdinak elkartu eta nahasten dira, bere jatorria eta sorkuntza edozein dela ere, eta hortik banaketa egiten da; beraz, ezinezkoa da bere jatorri espezifiko desberdintzea edo partikular baten edo Administrazio publiko baten kontsumo zehatza energia garbi edo zikin batetik datorren bereiztea, "igerilekuan" nahastu egiten direlako eta hortik banatu.

- Egiazki, Administrazio publikoek bide bakarra dute iturri berriztagarrietatik datorren energia elektrikoa kontsumitzeko: elektrizitate hau ekoizten duten enpresei zuzenean erostea, elektrizitatea salerosteko akordioen edo PPA (Power Purchase Agreement, ingelesez) delakoen bidez. Edo, noski, elektrizitate mota hau sortzen duten autokontsumorako instalazioak erabilia. Baina bi aukerak energia elektrikoaren horniduraren erosketatik kanpo geratzen dira.
- Hala ere, energia zein merkaturatzaileri erosi aukeratu daiteke eta posible da, halaber, merkaturatzaile horrek erosten duen energia guztia % 100 berriztagarria dela jakitea eta horrelakoa izan dadin exijitzea.
- Beraz, hau da gakoa: denok, Administrazio publikoak barne, merkaturatzaileei exijitzen badiegu erosten eta hornitzen duten energia % 100 berriztagarria izan dadila, energia berdearen sorkuntza areagotzea bultzatuko dugu, iturri kutsagarrien kalterako. Hau da energia elektrikoaren horniduraren kontratazio publikoaren azken helburua: % 100 berriztagarria eta garbia den energiaren ekoizpena eta kontsumoa sustatzea.

1. Zer da legezkoa eta zer legez kanpokoak energia elektrikoaren horniduraren kontratazio publikoan?

Zer da legez kanpokoak?

Dagoeneko ikusi dugunez, hornidura elektrikoaren kontratazio publikoak ezaugarri bereziak ditu beste hornidura-kontratu batzuekin alderatuta. Hori dela eta, oinarri batzuk ezarri behar ditugu proposatuko ditugun eta baldintza-agirietan gehitu ahalko ditugun klausula zehatzei ekin baino lehen.

Azken urteotan, hainbat Administrazio saiatu dira jasangarritasun irizpideak sartzen energia elektrikoaren hornidura-kontratuen lizitazioan eta, lehendabizi, eztabaida doktrinalen lekuko izan gara, gero alderdi sozialak eta ingurumenekoak baloratzeko ahal-eginen aurka konpainia elektriko handiek aurkeztutako errekurtsoen lekuko, kontratazio-batzordeen erabakien lekuko izan gara ere eta, azkenik, justizia eta kontratazio auzitegien epaien lekuko.

Jurisprudentzia honetara mugatuko gara zorrozki, gure iritsi juridikoa alde batera utziz erabat eta esparru juridikoan erosotasunez nola jardun dezakegun eta, aldiz, gaur egun zer bide juridikotik ezin den igaro adieraztera mugatuz.

Gida propositibo batentzat ohiz kanpokoak badirudi ere, hasteko onena izango da kontratazio publikoan zer ezin den egin azaltzea, eta hornidura elektrikoaren kontratazio-rako baldintza-agirietan zer klausula mota ez sartzea aholkatzen dugun azaltzea.

1. POBREZIA ENERGETIKOAREN AURKAKO KLAUSULAK

Adibide argitzaile gisa Bartzelonako Udala erabiliko dugu; izan ere, 2017an lizitaziora atara zuen Bartzelonako Udalaren eta hari lotutako beste erakunde batzuen energia elektrikoaren hornidura kontratatze eta pobrezia energetikoa artatzeko eta murrizteko esparru-akordioa. Kontratuaren aurrekontua: 75 milioi euro.

Arazoa pobrezia energetikoa murrizteari buruzko egikaritze-baldintza berezi bati dagokionez sortu zen (kontratuaren objektuarekin eta tituluarekin lotua). Bertan eskatzen zen enpresa esleipendunak “uztailaren 29ko 24/2015 Legeak, etxebizitzaren eta pobrezia energetikoaren eremuko larrialdiari aurre egiteko premiazko neurrienak, 6.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Bartzelonako Udalarekin akordio edo hitzarmen bat sinatu” behar zuela.

Gainera, enpresa esleipendunak jarduketa-plan bat aurkeztu behar zuen kontratatutako potentzia eta tarifa egokitzeko eta enpresa esleipendunaren bezeroei bonu sozialerako edo beste tarifa sozial eta deskontu batzuetarako sarbidea errazteko; eta hitzeman behar zuen, hornidura moztu aurretik, enpresa hornitzaileak txosten bat eskatuko ziela udaleko gizarte-zerbitzuei, pertsona edo familia-unitatea legean zehaztutako bizitegi-bazterketako arrisku-egoeretako batean dagoen erabakitzeke. Helburua zen baliabiderik ez zuten pertsona eta familiei hornidura elektrikoa moztea galaraztea.

Endesak eta Gas Naturalek baldintza-agiriaren kontrako errekurtsua aurkeztu zuten, argudiatuz pobrezia energetikoaren aurkako klausulek ez zutela erlaziorik kontratuaren objektuarekin, lizitazioa udalaren elektrizitate-hornidurarako zelako, eta, ondorioz, ez zelako inolako loturarik ezartzen kontratuaren objektuaren eta pobrezia energetikoari buruzko klausularen artean; izan ere, azken hau etxe partikularren hornidurari buruzkoa da, prestazioarekin zerikusirik ez duena.

Sektore Publikoko Kontratuen Kataluniako Auzitegiak lizitazioa geldiarazi zuen lehen-dabizi eta, azkenean, baliogabetu egin zuen. Errekurtsogileei eman zien arrazoia eta zehaztu zuen klausula horiek baliogabeak zirela ez zegoelako inolako loturarik kontratuaren objektuaren eta pobrezia energetikoari buruzko, uztailaren 29ko 24/2015 Legeari buruzko edo ez ordaintzeagatik partikularrei egindako hornidura-mozketei buruzko egikaritze-baldintza berezien artean.

Ondorio gisa, gomendatzen dugu pobrezia energetikoaren aurkako klausularik ez ezartzea udal-lokal eta -eraikinetarako elektrizitatea hornitzeko kontratu baterako, edo argiteria publikoa hornitzeko, ez dutelako inolako loturarik kontratuaren objektuarekin edo kontratuaren prestazioarekin.

2. KONTRATUAK ERRESERBATZEA ENERGIA ELEKTRIKOA BANATZEN DUTEN KOOPERATIBEI

Ikuspegi juridikotik, argi dago kontratuen erreserba ezin zaiela kooperatibei edo ekonomia sozialeko erakundeei aplikatu, baina galdera behin eta berriro agertzen denez, hain zuzen ere energia % 100 berriztagarriren merkaturatzaile gisa jarduten duten kooperatibak daudelako, labur aztertuko dugu.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian xedatzen du ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeentzat (kooperatibak, lan sozietateak, fundazioak edo elkarteak) kontratuak (edo kontratuen sortak) erreserbatzeko aukera.

Legezko figura espezifiko bat da, kontratu publiko bat esleitzeko prozedura erreserbatutzat jotzeko aukera ematen duena; horrek esan nahi du enpresa-kategoria jakin batzuk soilik parte hartu ahalko dutela lizitazioan edo kontratatuak izan, kasu honetan, ekonomia sozialeko enpresak. Kontzeptu juridikoa parte-hartzea mugatzearena da; honek berekin dakar kontratu bat erreserbatutzat jo ondoren, lizitaziotik kanpo uzten direla ekonomia sozialekoak ez diren beste edozein enpresa edo erakunde tipologia.

Hala ere, erreserba hori (48. XG) gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako kontratuetan ezar daiteke bakarrik; beraz, ondorio logikoa eta juridikoa da ez dela legezkoa elektrizitatearen hornidura-kontratu bat erreserbatzea.

Eta kontratuen legedi nazionalan garraioen, uraren eta energiaren sektoreei dagokien kontratuen legea oraindik onartu ez den arren, honako bi Zuzentarau hauek aipatzea komeni da: Europako Parlamentuaren 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa; eta Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/25/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EB Zuzentaraua indargabetzen duena. Ez batak ez besteak ez dute aipatzen energiaren sektoreko kontratuak ekonomia sozialeko erakunde eta enpresei erreserbatzeko aukera, baizik eta soilik, legeria nazionalak bezala, osasunaren, gizartearen eta kulturaren arloetan.

Gutziz baztertzen dugu aukera hau, kontratuei buruzko legediak ez duelako ahalmenik ematen energia elektrikoaren hornidura-kontratu bat edo kontratu baten sorta bat ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeentzat -kooperatibak, lan sozietateak, fundazioak edo elkarteak- erreserbatzeko.

3. ELEKTRIZITATEAREN ETIKETATZEARI EDO ELEKTRIZITATEAREN JATORRIARI BURUZKO ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Administrazio publiko batzuk energia berriztagarriak sortzeari eta merkaturatzeari buruzko edo hornitu beharreko energia ekoizteko fasean sortutako emisioei buruzko zenbait alderdi txertatzen saiatu dira energia hornitzeko kontratu publikoen esleipen irizpideen artean.

Klausula horien bidez, hornitutako energiaren zer ehuneko datorren iturri garbi eta berriztagarrietatik balioztatzen saiatu izan da; hori eskala batean islatuko litzateke eta horrek ehuneko horren arabera alde aurretik ezarritako baremoaren puntu jakin batzuk lortzea ekarriko luke.

Horrela, adibidez, balioztatzen saiatu izan zen: lizitatuak 2018an zehar egindako CO₂ isuriei dagokienez elektrizitatearen etiketatzea A balitz, 5 puntu emango lirateke; B balitz, 2 puntu; eta C balitz, puntu 1. Gainontzeko etiketatzeentzat 0 puntu emango lirateke.

Antzeko irizpidea balioztatzen saiatu izan da jatorri-bermearen ziurtapenari dagokionez, emandako energia guztia iturri berriztagarrietatik eta efizientzia handiko kogeneraziotik datorrela ziurtatzen duena. Baina saiatu izan dela esaten dugu; izan ere, klausula horien aurka errekurtsioa aurkeztu zuten enpresa elektriko batzuek eta kontratazio auzitegiek arrazoia eman diete, klausulak baliogabetuz.

Auzitegiek esleipen irizpide horiek bertan behera utzi zituzten ulertu zutelako ez dutela loturarik kontratuaren objektuarekin, baizik eta subjektiboak direla (enpresa ekoizleekin eta merkaturatzaileekin loturikoak) eta ez dutela eskaintza onena baloratzen uzten hornitutako energiak CO₂ isurietan duen eraginaren arabera.

Ebazpen horiek ondorio batera iristen dira: ez dagoela loturarik esleipen irizpidearen eta kontratuaren objektuaren artean, balioztatu nahi den elektrizitatearen etiketatzeak merkaturatzaileek bere bezeroei epe jakin batean dagoeneko hornitutako elektrizitateari buruz informatzen duelako, baina ez du frogatzen hornitu beharreko energia nahitaez iturri berriztagarrietatik eta efizientzia handiko kogeneraziotik datorrenik.

Epai eta ebazpen esanguratsuenen artean, honako hauek aipatzen ditugu:

- 35/2018 Ebazpena, maiatzaren 9koa, Gaztela eta Leongo Kontratu-Errekurtsoen Administrazio Auzitegiarena, zeinaren bidez baiesten baita Gas Natural Comercializadora, S.A.k jarritako kontratazio arloko errekurtsio berezia, Gaztela eta Leongo Erkidegoko Administrazioak eta atxikitako erakundeek erabiltzen dituzten instalazioen hornidura elektrikorako puntuei bideratutako energia elektrikoaren hornidura homologatzeko esparru-akordioa arautu behar duten baldintza-agirien aurkakoa, M2017/012360 espedientea, Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritzarena.
- 256/2017 Ebazpena, Madrilgo Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiarena, 2017ko irailaren 19koa, zeinaren bidez baiesten baita Gas Natural Comercializadora, S.A.k jarritako errekurtsio berezia, Madrilgo Udalaren eta bere erakunde autonomoen udal-erakinetarako eta ekipamenduetarako energia elektrikoa eta gas naturala hornitzeko esparru-akordioaren administrazio-klausula partikularren agiriaren aurkakoa.

- 1148/2017 Ebazpena, Kontratu-Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiarena, Gas Natural Comercializadora, S.A.ren izenean eta hura ordezkatzuz aurkeztutako erreklamazioagatik, Empresa Municipal de Transportes de Valencia, S.A.U.ren hiru instalazioetarako behe- eta erdi-tentsioko energia elektrikoaren hornidura-zerbitzuaren kontratazioa arautu behar duten administrazio-klausula partikularren agiriaren aurka aurkeztu zena, 2017/0116 espedientearekin eta EMT de Valenciak berak deiturikoa.

Gehiegi luzatu gabe, argitu behar da sakoneko arazoa hauxe dela: ez dago hornitzen eta kontsumitzen den energia zehatzak % 100 jatorri berriztagarria duela egiaztatzen duen sistema objektibo eta egiaztatgarririk. Izan ere, elektrizitatearen etiketatzeak edo jatorri-bermeek "merkaturatze-mixa" edo "ekoizpen-mixa" delakoei buruz informatu eta ziurtatzen dute, baina iraganeko epe jakin bati buruz egiten dute, eta ez dute bermatzen ekoizten edo kontsumitzen den energia zehatza % 100 berriztagarria denik. Kontratua egikaritzearekin loturarik ez badago, esleipen irizpideak ez du balio.

Beraz, oso argi utzi nahi dugu alderdi hauek baloratzeko benetako arazoa ez dela horrenbeste juridikoa, teknikoa baizik. Egiaztapen kontua da, gaur egun ez baitago kontsumitzen den energia iturri batetik edo bestetik datorren ziurtatzen duen ziurtagiri edo frogabide fidagarri eta egiazkorik. Azken finean, egiaztapenik ez dagoenez, aipatutako esleipen irizpideak ezin dira lotu kontratuaren objektuarekin, ezta kontratuaren prestazioarekin ere.

Garrantzitsuak direnez, eta gaia argitzeko zein legezko aukerak azpimarratzeko helburu bikoitzarekin, frogatze-sistemak aipatuko ditugu jarraian.

Frogatze-sistemak

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) iturri berriztagarrietatik ekoiztutako energia kopurua kontrolatzen eta ziurtatzen du, eta energia-iturrien jatorria frogatzeko existitzen diren sistema bakarrak eta eskusiboak jaulkitzen ditu. Jatorri-bermeak eta elektrizitatearen etiketatzeak dira.

Bi mekanismo hauek dira Administrazio publikoek baldintza-agirietan erabil ditzaketenak sarearen bidez hornitzen zaien elektrizitatea berriztagarria dela frogatzeko, baina, esan bezala, *a posteriori* egiaztatzea baino ez dute uzten.

Jatorri-bermeak

Lehen esan dugun bezala, banaketa-sarean ekoizpen-iturri guztiak nahasten dira, eta, beraz, ezinezkoa da hornidura-puntuan energiaren jatorria bereiztea. Hala ere, MLBNk *jatorri-bermeak* izeneko ziurtapen-sistema bat ezarri du, banatzaile jakin batek sortutako eta eskuratutako energia berriztagarri guztiari buruzkoa.

Jatorri-bermea MLBNk ematen duen egiaztagiri bat da, enpresa ekoizleek eskatuta. Egiaztagiri honek ziurtatzen du epe jakin batean ekoiztutako energia elektrikoaren megawatt-ordu kopuru jakin bat energia-iturri berriztagarrietatik edo efizientzia handiko kogeneraziotik sortu dela (kogenerazioa elektrizitatea ekoizteko eraginkortasun energetiko handiko sistema bat da, baina ez dator bat energia berriztagarriaren kontzeptu teknikoarekin).

Hauen helburua da kontsumitzailearen edo bezeroaren aurrean frogatzea energiaren ehuneko edo kopuru jakin bat iturri horietatik lortu dela, eta, horretarako, energia berriztagarrien ekoizleek enpresa merkaturatzaileei edo azken kontsumitzaileei transferitu ahal dizkiete egiaztagiri horiek.

Jatorri-bermearen egiaztagiriak energia-iturri berriztagarriekin benetan sortutako ekoizpen elektriko garbiaren arabera jaulkitzen dira. Jaulkitako jatorri-bermeen kopurua eta horien gaineko transferentziak erregistratzen dituen idazpen-sistema baten bidez kudeatzen dira, harik eta ezereztan diren arte, ezeztatzeagatik, iraungitzeagatik edo azken kontsumitzaile bati saltzen zaizkiolako (erredentzioa). Esan behar da, gainera, jatorri-bermeen merkatu bat dagoela, eta merkaturatzaileek bermeak eros diezazkietela berriztagarrien ekoizleei edo bitartekariei, energiaren azken kontsumitzaile diren haien bezeroen aurrean jatorria frogatzeko.

Jatorri-bermeak ekoiztutako elektrizitatearen jatorria frogatzen du, baina enpresa merkaturatzaile batek energia berriztagarria eta ez berriztagarria bereizi gabe erosten eta hornitzen badu, zailago izango du frogatzea kontrataturiko energia iturri berriztagarrietatik datorren edo ez. Horregatik, ondorio hauetarako interesgarria den jatorri-bermea da frogatzen duena energiaren % 100ak jatorri berriztagarria edo garbia duela. Hori dela eta, jatorri-bermearen ziurtagiri berdeek hornitutako eta kontsumitutako energiaren % 100 ekoizpen berriztagarri bidez sortu dela berma dezatela proposatuko dugu.

Ondorio praktikoetarako: jatorri-bermeek iraganeko epe bat ziurtatzen dutenez, ez digute esleipen irizpide gisa balio, ez dutelako lotura esturik kontratuaren objektuarekin. Hala ere, jatorri-bermeei buruzko ziurtagiria oso baliagarria izango zaigu kontratua egikaritu bitartean edo amaitzean, egiaztatzeko hornitutako energia iturri berriztagarrietatik etorri dela % 100ean. Horrela, posible izango da baldintza-agirietan honako betebeharra edo esleipen irizpidea ezartzea: hornitu beharreko energiaren % 100ak jatorri berriztagarria izango du eta MLBNK frogatuko du ziurtagirien jaulkipen-sistemen bidez, kontratua egikaritzeko aldiari dagokionez.

Elektrizitatearen etiketa

MLBNk elektrizitatearen etiketa bat ere jaulkitzen du, non aurreko ekitaldian merkaturatutako energiaren jatorria nola osatzen den azaltzen duen ehunekoak agertzen baita. Etiketa honetan, gainera, CO₂ eta hondakin erradioaktiboen emisioak ere jasotzen dira. Horrela, merkaturatzaileak, amaitutako ekitaldian egindako jardueraren arabera, hainbat letratan sailka daitezke: A da energia berriztagarria soilik merkaturatzen duena eta CO₂ eta hondakin erradioaktiboen % 0ko emisioak dituen, gero B, C, D, E, eta azkenik G, kutsagarriena.

Elektrizitatearen etiketatzearen helburua da bezeroei informazio fidagarria ematea kontsumitzen duten elektrizitatearen jatorriari buruz eta enpresa merkaturatzaileak ematen die jaulkitako jatorri-bermeen kopuruaren bidez, nahiz eta energia berriztagarria hornitzen duten enpresa guztiek ez duten % 100ean egiten.

Informazio hau MLBNk prestatzen eta onartzen du urtero eta merkaturatzaile bakoitzaren merkaturatze-mixaren berri ematen die kontsumitzaileei, ingurumen-inpaktu teorikoarekin, merkaturatzaileek eskuratutako jatorri-bermeetatik abiatuta.

Beraz, araudi espezifikoen arabera (6/2012 Zirkularra, irailaren 27koa, Energia Batzorde Nazionalarena [CNE, gaztelaniaz]) eta otsailaren 7ko 1/2008 Zirkularren arabera, CNErena, jatorri-bermeek energia iturri berriztagarrietatik eta kogeneraziotik datorrela frogatzen dute, bereizketarik egin gabe, eta elektrizitatearen etiketatzea, berriz, hornitutako energiaren osaera zehatzari buruzko informazioa emateko diseinatutako mekanismo bat da. Hortik ondorioztatzen da eskatutako ziurtapena, hau da, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ematen duena, maiatzaren 20ko IET/931/2015 Aginduaren arabera, ITC/1522/2007 Agindua aldatzen duena, eta merkaturatutako energiak % 100 jatorri berriztagarria duela dioena, aldi berean elektrizitatearen etiketatzearen A sailkapenarekin bat datorrena, energia iturri berriztagarrietatik soilik datorrela frogatzen duen bakarra dela.

Beste behin, arazo honen aurrean gaude: elektrizitatearen etiketak ez du frogatzen delako kontratu publikorako hornituko den energia % 100 berriztagarria denik, baizik eta iraganeko denbora-tarte jakin batean merkaturatutakoak jatorri berriztagarria izan zuela eta proportzio jakin batean. Baina hau frogabide bat da berez; izan ere, enpresa batek merkaturatuko energiaren % 100ak jatorri berriztagarria badu, erabat frogatuta geratuko da kontratu publikorako hornitutako energiak ere jatorri % 100 berriztagarria izan duela.

Gainera, auzitegiek erabaki dute lizitatzailleek aurretik egindako jardueraren esperientziari eta kalitateari buruzko betekizun bat ezarri behar dela, eta informazio hori izango da kaudimen teknikoko irizpide bat txertatzeko bidea emango duena, enpresa lizitatzailleek energia % 100 berriztagarria erosi izana exijituz.

Orduan, zer da legezkoa eta zer irizpide gehi daitezke?

Proposamenek irizpide sozialak eta ingurumenekoak txertatzea proposatzen dute, irizpide horiek kontratazio-prozeduraren fase desberdinetan zenbait klausulatan sartuz, eskema honen arabera:

1. Kontratuaren objektua. Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea.
2. Kaudimen teknika eta profesionala.
3. Sortak ezartzea.
4. Esleipen irizpideak.
5. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.
6. Kontrolatzeko eta egiaztatze sistemak.

Proposamenak kontratu publikoei buruzko nazio mailako eta Europa mailako araudia-rekin bat datoz, honako legedia hau erreferentziatzat hartuta:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parla-mentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 31/2007 Legea, urriaren 31koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetako kontratuei buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EB Zuzentaraua indargabetzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/25/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EB Zuzentaraua indargabetzen duena.

% 100EAN ENERGIA BERRIZTAGARRIETATIK DATORREN ENERGIA-HORNIDURAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

1	2	3	4	5	6
KONTRATUAREN OBJEKTUAREN DESKRIBAPENA	SORTETAN ZATITZEA	INGURUMEN ARLOKO KAUDIMEN TEKNIKOA: % 100 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	IZAERA SOZIALA ETA INGURUMENEOA DUTEN ESLEIPEN IRIZPIDEAK	IZAERA INGURUMENEOA DUTEN EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK	KONTROLATZEKO ETA EGIAZTATZEKO SISTEMA
Bete beharreko premiak espedientean justifikatzea.	% 100ean energia berriztagarrietatik datorren energiaren sorta bat edo batzuk finkatzea				

2. Kontratuaren objektua eta kontratazio espedientea

Kontratazio publiko arduratsua: legezko betebeharra

Prozedurazko aukera praktikoetan eta aplikazio proposamen zehatzetan sartu aurretik, ezinbestekoa da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1.3 artikulua aipatzea. Artikulu honek, xedapen ondorio ez deklarativo batekin, argi eta garbi adierazten du kontratu publiko guztiek erantzukizun sozialeko eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak izan behar dituztela.

1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.

Kontratuen lege berriarekin paradigma aldaketa nabarmena da, klausula sozial eta ingurumenekoak legezkoak diren ala ez erabakitzeke edozein eztabaida juridiko edo doktrinal zentzugabekoa baita aurrerantzean. Izan ere, indarrean sartu zenetik, SPKLren 1.3 artikulua urratzeagatik legez kanpokoa dena zera da: irizpide sozialak eta ingurumenekoak txertatu izan gabe kontratatzea.

Beraz, jarraian garatuko ditugun proposamenek energia-horniduraren kontratu publikoak lizitatzeko eta esleitzeko borondatea eta betebeharra islatuko dituzte, kontratu publikoen araudiko aginduen arabera. Xedapen hau, gainera, SPKLren 28.2 artikuluekin indartuta geratzen da:

28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratuko dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozeduretan alderdi positibo gisa hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

Kontratuaren objektua

Lehenengo auzia eta proposamena kontratuaren objektuan bertan ingurumen irizpideak espresuki aipatzea da. Honela, hezurmamitu eta agerian jartzen da kontratazio-organismoaren eta Administrazio publiko kontratugilearen borondatea ez dela energia-hornidura hutsa lizitatu eta kontratatu nahi izatea, baizik eta iturri %100 berriztagarrietatik datorren energia-hornidura bat.

Aukera hau guztiz bermatzen du 99.1 artikuluan 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak:

99. artikulua. Kontratuaren objektua.

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

Araudiak kontratuaren objektua erreferentzia sozial eta ingurumenekoekin definitzeko aukera zehazten du, eta agintea ere ezartzen du ("definituko da") kasu batzuetan ("sar daitezkeela uste den"). Eta ohartarazi behar da indargabetutako 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren betekizunak ez duela agintzen dagoeneko. Dekretu honek, 150.1 artikuluan honakoa exijitzen zuen: "esleitzeko irizpideak kontratuaren objektuari zuzenean loturik egon behar dute". Interpretazio murriztaile hau kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan, 2014ko otsailaren 26koa, jorratu eta ebatzi zen. Testu hau hitzez hitz txertatu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 145.6 artikuluan, eta auzi hau behin betiko konpondu da.

145. artikulua Kontratua adjudikatzeke baldintzak eta irizpide motak.

6. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu haue-tan esku hartzen duten faktoreak:

- a) obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia egi-nez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasagarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei;
- b) edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

Ondorio juridikoa argia da: lotura kontratu-prestazio osoarekiko ezarri ahal da modu zabalean. Horrela, horniduraren edozein alderdi, dela diseinua edo ekoizpena, edo merkaturatzea eta eskueran jartzea, kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela ulertu behar da, prestazioaren substantzia materialaren parte den ala ez alde batera utzita.

Illo horretan azaldu zen, hain zuzen ere, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia azaroaren 26ko 120/2018 Akordioan, % 100 energia berriztagarrietatik eratorritako energia-horniduraren baldintza-agirien aurkako errekursoari buruzkoan. Ebazpen horretan, gaitzetsi egin ziren Iberdrola Clientes S. A. U. eta Endesa Energía S. A. U. enpresek Eguesibarko Udalari 2018-2021erako energia hornitzeko (energia elektriko berriztagarria eta gas naturala) esparru-akordioaren aurka aurkeztutako erreklamazioak.

Ebazpenean honako hau adierazten da: “Ez da hainbeste energia berriztagarriaren hornidura, baizik eta energia elektrikoaren hornidura, % 100 berriztagarria dela frogatzen duen jatorri-bermearen ziurtagiriarekin. Gorago adierazi den bezala, objektu honek bete beharreko premia energia elektrikoaren horniduratik harago doa; izan ere, erreklamaturako Udalak, duen eskumenari jarraikiz, beste premia batzuk ere betetzen dituen objektu bat zehaztea erabaki du, hala nola bere estrategia energetikoarekin eta, bereziki, karbono-aztarna murriztearekin lotutako helburuak”.

Beraz, ezinbestekoa iruditzen zaigu kontratuaren objektuari berari erreferentzia egitea:

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTRATUAREN OBJEKTUA

Energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa, % 100 berriztagarria dela frogatzen duen jatorri-bermearen ziurtagiriarekin.

Edo: energiaren hornidura ingurumen-inpaktu minimoarekin eta sozialki arduratsua den egikaritzearekin.

Edo: energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa, % 100 berriztagarria dela frogatzen duen jatorri-bermearen ziurtagiriarekin eta ingurumen-inpaktu minimoarekin.

CONDICIONES REGULADORAS DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE ENERGÍA (ENERGÍA ELÉCTRICA RENOVABLE Y GAS NATURAL) AL AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE EGÜÉS EN EL PERIODO 2018-2021

CAPITULO I: DISPOSICIONES GENERALES

1. OBJETO DEL ACUERDO MARCO

El presente procedimiento de licitación tiene por objeto la celebración de un Acuerdo Marco para seleccionar las empresas comercializadoras entre las cuales se adjudicará el suministro de energía eléctrica con certificado de garantía de origen acreditado 100% renovable, y gas natural respetuoso con el medio ambiente, al Ayuntamiento del Valle de Egüés, conforme a los lotes establecidos, durante el periodo de vigencia fijado en las Condiciones Reguladoras (pliego).



Eguesibarko Udalaren (Nafarroa) baldintza-agiriaren adibidea. Bertan ezartzen da kontratuaren objektua energia %100 berriztagarriaren hornidurak osatzen duela.

Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea

Kontratuaren objektua koherentziaz eta bere eduki arduratsua eta jatorri % 100 berriztagarria aipatuz definitzeko interesari eutsiz, gomendagarria da, halaber, kontratazio espedientearen justifikazio memorian, edo bete beharreko premiak zehaztean, labor azaltzea balio erantsia eta energia-hornidura kontratatzeko premia eta borondatea,

irizpide sozial eta ingurumenekoekin ez ezik, % 100ean energia-iturri berriztagarri eta garbietatik datorren energia izan behar dela azalduz.

Zentzu honetan Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.1 eta 1.1 artikuluetako erreferentziak aipatu behar dira:

28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso behar da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

1. Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatzeko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla, dauden premiak aldeztu aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.

Horri dagokienez, berriz aipatu behar dugu 120/2018 Akordioa, azaroaren 26koa, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiarena, zeinaren bidez Eguesibarko Udaleri 2018-2021erako energia hornitzeko (energia elektriko berriztagarria eta gas naturala) esparru-akordioa arautzen duten baldintzen aurka aurkeztutako erreklamazioak gaitzesten diren. Izan ere, ebazpenak aipamen interesgarria eransten du espedientearen justifikazioari eta bete beharreko premiei buruz:

«Zentzu honetan, nabarmendu behar dugu kontratatu nahi den obraren, horniduraren edo laguntzaren objektua mugatzeko eskumena kontratazio-organismoari dagokiola, eta honek bere beharra justifikatu behar duela dagokion lizitazio-prozesua hasi baino lehen. Izan ere, KPFLren 40.3 artikuluan xedatutakoaren arabera: Kontratazio espedientearen kontratuaren unitate kudeatzaileak emandako txosten arrazoitu

baten bidez hasiko da; txosten horretan ase gogo diren beharren izaera eta neurria azalduko da, bai eta hauek ere: beharrak asetzeko xedearen egokitasuna, kontratua-ren xede diren prestazioen ezaugarriak eta balio zenbatetsia [...]»

Eta baldintza-agirietan espedientearen justifikazioa eta bete beharreko premiak aipatzea proposatzen dugunez, Eguesibarko Udalarari 2018-2021rako energia hornitzeko (energia elektriko berriztagarria eta gas naturala) esparru-akordioa arautzen duten baldintzen testua hitzez hitz hartu dugu. Adibide hobea eta errealagoa aurkitzea, ezinezkoa.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: ESPEDIENTEAREN JUSTIFIKAZIOA ETA BETE BEHARREKO PREMIAK

Nazio Batuetako klima-aldaketaren aditu-taldearen txostenek (IPCC, ingelesezko siglak) eta 2015eko abenduan Parisen ospatutako Klimaren Gailurreko (COP21) ondorioek berretsi egiten dute gizakia aurrekaririk gabeko berotze global azkarra eragiten ari dela, eta berotze horren ondorioak oso kaltegarriak izan daitezkeela bizitzarako, batez besteko tenperaturak industriaurreko aroan zeuden mailatik bi gradu zentigradu baino gehiago igotzen badira. Bi graduko muga hori ez igartzeko probabilitatea atmosferan berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak geldiaraztea eta egonkortzea lortzearen araberakoa da, eta, horretarako, emisioak nabarmen murriztu behar dira.

Berotegi efektuko gasen emisioak gaur egungo energia-sistemaren ondorio dira nagusiki, garraioaren sektorearekin batera, erregai fosilak erretzean oinarritzen baita. Elektrizitatea ekoizteko, zentral termikoetan ikatza erretzetik datozenak nabarmentzen dira; izan ere, Espainian 2015ean % 23,8 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta.

Bestetik, jatorri nuklearreko energiak elektrizitatea ekoizteko estatuaren egungo sisteman duen gehiegizko pisua daukagu, % 22 gutxi gorabehera (REEren 2015eko urteko txostena). Kontuan hartu behar da azken urteotan gertatu diren istripu oso larrien ondorioen hedadura (Txernobyl eta Fukushima).

Beraz, hemen ez bezala, gure inguruan “trantsizio energetikoa” abian jartzen ari da dagoeneko eta energia-iturri berriztagarriak pixkanaka ezartzen ari. Horrela, trantsizio honetan erabakigarria da Europa 2020 Estrategia ezaguna, Batzordeak 2010ean aurkeztu zuena. Estrategiak EBren energia-politikaren helburuak finkatzen zituen: i) berotegi efektuko gasen isuria % 20 murriztea 1990eko mailarekin alderatuta; ii) energia-iturri berriztagarrien ehunekoa % 20ra arte areagotzea energiaren amaierako kontsumoan eta iii) eraginkortasun energetikoa % 20 hobetu 1990ko mailarekin alderatuta.



Baina berriki, Europako energia-politikaren helburuak berrikusi egin dira 2001/2018/EB, 844/2018/EB eta 410/2018/EB Zuzentarauetan, eta 2030erako minimoak ezarri dira, 2023an berrikusi daitezkeenak: % 32 berriztagarrietarako eta % 32,5 eraginkortasunerako, eta berotegi efektuko gasen isurien kasuan % 40ko murrizketa 1990. urtearekin alderatuta.

Administrazio publikoen ekintza erantzunkidea erabakigarria da trantsizio energetikoaren helburu hori lortzeko. Ekintza-tresna garrantzitsuenetako bat da ondasunen eta zerbitzuen hornidurara bideratutako aurrekontu publikoa karbono gutxiko ekonomiaren eredu baterantz bideratzea. Hor jokoan sartzen dira kontratazio publikoko prozedurak, eta Kontratazio Publikoaren Behatokiaren arabera, ekonomikoki BPGren % 18,5 da. Zentzu honetan, kontratazio publikoa ez da berez helburu bat, eta ez da soilik prestazioak, obrak edo zerbitzuak Administrazioarentzat ekonomikoki onuragarrienak diren baldintzetan lortzeko bitarteko bat, baizik eta, batez ere, botere publikoen zerbitzura dagoen tresna juridiko bat dela, oinarrizko helburuak eta balioak betetzeko: gizarte-kohesioa, aberastasunaren birbanaketa, berdintasuna eta justizia.

Horrela uste du Udalak Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentaruarekin bat etorritik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartua. Zuzentaruak 2. kontuan hartuzkoan dio: "kontratazio publikoak funtsezko papera du Europa 2020 Estrategian, eta merkatuan oinarritutako tresnetako bat da, hazkunde zentzuduna, jasangarria eta integratzailea lortzeko erabili behar dena, aldi berean funts publikoen erabilera eraginkorragoa bermatuz, enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte hartzea erraztuz eta kontratatzaileek kontratazio publikoa hobeto erabil dezaten ahalbidetuz, helburu sozial komunen alde". Lehenengo baieztapen hau garatu egiten da: "Kontsiderazio sozialak eta ingurumenekoak kontratazio-prozeduretan gehiago integratze aldera, botere esleitzzaileek baimena izan behar dute kontratuak esleitzeko irizpideak edo egikaritzeko baldintzak hartzeko (...) beren bizi-zikloen edozein alderditan eta edozein fasetan, produkturako lehengaiak erauzten direnetik produktua ezabatzeko faseraino, ekoizpen-, prestazio- edo merkataritza-prozesu espezifikoan esku hartzen duten faktoreak barne hartuta..." (97. kontuan hartuzkoa).

Beraz, zuzentarau berriak behin betiko konpontzen ditu klausula sozialen legezotasunari buruzko eztabaidak; edozein aurkakotasun tekniko edo juridikok ez du zentzurik jada, eta ezinbestekoa da gure administrazio publikoek beren kontratuak erabiltzea klima-aldaketaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko eta kalitatezko enplegua sortzearen eta gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna sustatzearen aldeko tresna eraginkor gisa, beti, baina batez ere gaur egungo krisi ekonomiko eta sozialeko egoeran.

+

Horregatik guztiagatik, kontuan hartuta egungo sistema elektrikoak hornidura ziurtatzeko potentzia nahikoa duten ekoizpen-iturriak dituela -nahitaez erregai fosiletara eta energia nuklearrera jo behar izan gabe- eta, gainera, merkatu elektrikoan esku hartzen duten operadore ekonomikoek guztiz eskuragarri dituzten iturriak direla, kontratazio publikoan iturri kutsatzaileak ez onartzea ez da diskriminatzailea, eta, beraz, ez dago kontraesanean Europar Batasunaren Tratatuaren barne-merkatuaren funtsezko printzipioekin, EBko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak defendatzen duen moduan.

Beraz, Udal honek konpromiso hau hartzen du, eta ondorioz, onartu egiten du kontratazio publikoa ingurumen-politikan eta politika energetikoan esku hartzeko tresna dela, eta kontratu hau egikaritzeko baldintza berezi gisa ezartzen du enpresa esleipendunak hornitzen duen elektrizitatearen % 100 iturri berriztagarrietatik etorri behar dela.

3. % 100ean energia berreztagarritik etortzeari buruzko kaudimen teknikoak

Gida honetako proposamen garrantzitsuena da kaudimen tekniko eta profesionaleko irizpide bat sartzea, enpresa lizitatzailleek iturri berriztagarrietatik % 100ean eratorritako energia hornitzeko gaitasuna dutela eskatzeko eta egiaztatzeko.

Kaudimen teknikoak eta profesionalak ezartzeko aukera SPKL17ren 89. artikuluan jasotzen da, oro har, hornidura-kontratuarako. Eta ingurumen arloko kaudimen teknikoari dagokionez, SPKLk kaudimen tekniko bat ezartzen du obra-kontratuarako (88.1.d artikulua) eta zerbitzu-kontratuarako (90.1.f artikulua), kontratua egikaritzean enpresek aplikatuko dituzten ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko erreferentziarekin. Hornidura-kontratuarekin ez da zehaztapen hau horrela jasotzen, baina 89.1.c) artikuluan enpresaren instalazio teknikoak, kalitatea bermatzeko erabilitako neurriei eta azterketa- eta ikerketa-bitartekoei egiten zaizkien erreferentziak eta 89.1.g) artikuluan enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ditzakeen hornidura-kateko kudeaketa-sistemei eta jarraipen-sistemei egiten zaizkien aipamenak zentzu zabalean ulertu behar dira, eta hornitu beharreko ondasunaren bizi-zikloari dagokionez. Gainera, SPKLren 94. artikulua berariaz aipatzen ditu ingurumena kudeatzeko arau espezifikoak.

89. artikulua. Kaudimen teknikoak hornidura-kontratuarekin.

1. Hornidura-kontratuarekin, enpresaburuaren kaudimen teknikoak ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatuko beharko da, kontratazio-organok egindako aukeraren arabera:

- a) Gehienez ere azken hiru urteetan egindako hornidura-lan nagusien zerrenda, kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko hornidura-lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira. Gaitasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatzaileek adierazi ahalko dute kontuan hartuko direla hiru urte lehenago arte egindako hornidura-lanei buruzko frogak. Kontratazio-organoren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira egindako hornidura-lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark egindako ziurtagiriaren bidez eta, halakorik ez, enpresaburuaren deklarazio baten bidez eta, horrekin batera, bere esku di-

+

tuen eta prestazioa eman izana egiaztatzen duten agirien bidez; behar izanez gero, agintaritza eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari.

[...]

f) Kalitate-kontrolaz arduratzen diren eta gaitasuna aitortua duten erakunde edo zerbitzu ofizialek jaulkitako ziurtagiriak, non, arau tekniko edo espezifikazio jakin batzuk aipatuz eta xehetasun guztiekin, produktuen kalitatea egiaztatuko den.

Proposamen hau bat dator erabat administrazio-kontratazioko auzitegien ebazpenek berariaz irekitako bidearekin, hala nola aipatutako Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren ebazpena bere 120/2018 Akordioan, azaroaren 26koa.

Baina bereziki, aukera hau Madrilgo Udalaren lizitazioaren kasuaren bidez aztertuko dugu. Madrilgo Udalaren eta bere erakunde autonomoen udal-eraikinetarako eta ekipamenduetarako energia elektriko berriztagarria hornitzeko esparru-akordioa (4 sorta) arautu behar duen administrazio-klausula partikularren agiriaz ari gara, prozedura irekiaren bidez esleitu beharrekoa (135/2017/00252 espedientea).

Baldintza-agiriek energia elektrikoko lau sorta aipatzen dituzte, 82 milioi eurotan. Esparru-akordioaren objektua da Madrilgo Udalaren eta haren erakunde autonomoen udal-eraikinetarako eta ekipamenduetarako energia berriztagarriaren hornidura eta sareetarako sarbidea, energia elektriko berriztagarria 2018ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko aldirako. Akordioak kontratazio publikora sartzea errazten die enpresa txiki eta ertainei, eraginkortasun energetikoko eta gizarte-inklusioko irizpideak txertatzen ditu eta merkaturatutako energiaren jatorria % 100 berriztagarria izateko eskakizuna jasotzen du.

Gas Natural Comercializadora, S.A.k, Iberdrola Clientes, S.A.U.k eta Endesa Energía, S.A.U.k baldintza-agiri horien kontrako errekurtoa aurkeztu zuten, baina legezkoztat jo dira (baldintza-agiriak zein orain aztertuko ditugun kaudimen teknikoari buruzko klausulak) 110/2018 Ebazpenaren bidez, 2018ko apirilaren 18koa, Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiarena. Ebazpena, errekurritua izan ondoren, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak berretsi du, 2019ko uztailaren emandako epai irmoan, lehiaketan parte hartzeko kaudimen-baldintzak eskumen zabalarekin ezartzeko Udalak duen ahalmena aitortuz (kasu honetan, lehiaketan parte hartzen zuten konpainiek merkaturatutako energia % 100 berriztagarria zela bermatu behar izatearen bermea).

Baldintza-agiri horietan enpresa lizitatzaileri eskatzen zitzaien, kaudimen teknikoko edo profesionaleko irizpide gisa eta, beraz, lizitazioan parte hartu ahal izateko aurre-tiazko gaitasun-betekizun gisa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eman-dako A etiketarekin kalifikatuta egon behar zutela, eta frogatu behar zutela energia % 100 berriztagarria hornitu zutela bakarrik, eta haien jatorri-bermeetan ez zela beste energia-motarik agertzen.

Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiaren eta Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren iritziz, eskatutako kaudimen-irizpidea eta ziurtagiria egokiak eta legalki baliodunak dira, eta onargarria da lehia mugatzea energia berriztagarria soilik merkaturatzen duten enpresetara bakarrik, modu horretan, Udalerako hornidura jatorri horretakoa izan dadin eta kogenerazioa bezalako beste iturri batzuk egon ez daitezten.

Beraz, onartu zen lizitazioan ez onartzea jarduera garatzeko legez gaitutako beste merkaturatzaile batzuk, merkaturatzaile horiek energia berriztagarria saltzeaz gain salmenta-zorroan beste jatorri batzuk dituzten energia-iturrien mix bat badute; izan ere, horiek onartzeak suposatuko luke Udalarari entregatzen dioten mixean sartutako energiak, jatorri-bermearen ziurtagiriarekin bada ere, ez lukeela jatorri % 100 berriztagarria egiaz-taturik izango eta horrenbestez, ez lukete kontratuaren objektua benetan entregatuko bere jatorriari buruz ezarri den ingurumen-baldintzari dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala ere zentzu berean azaldu da eta 277/2019 epaian, 2019ko urriaren 16koan, 60/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokionez, Transportes Urbanos de Vitoria S.A. (TUVISA) enpresa publikoaren aldeko epaitza eman du, hornitutako energiaren jatorria % 100 berriztagarria dela frogatzeko eskakizuna kaudimen teknikoko irizpide gisa guz-tiz baliozkotzat joz.

Ondorioz, auzitegiek berresten dute energia % 100 berriztagarria dela ziurtatzeko modu bakarra MLB-Nk enpresa merkaturatzaile bakoitzaren merkaturatze-mixari buruz ematen duen ziurtapena dela, eta horrela definitzen da kaudimen teknikoaren betekizuna. Beraz, ez da Udalarari entregatzen zaion elektrizitatearen hornidura energia berriztagarritik datorrela ziurtatzen duen jatorri-berme bat, bai-zik eta elektrizitate-etiketari buruz ari garela, A kategorian, zeinak ziurtatzen baitu aurreko ekitaldian merkaturatzailea energia % 100 berriztagarriarekin soilik jardun zela, beste iturri batzuetatik datorren energiarekin nahastu gabe.

Ohartarazten dugu kaudimen teknikoko eskakizun hau osatu egin behar dela (aurrera-go ikusiko dugu) kontratua egikaritzen den bitartean jatorri % 100 berriztagarria mantentzeko betebeharrarekin; izan ere, Auzitegiak ondo dioten bezala: "Enpresa lizitatzai-leak bere energia guztia jatorri guztiz berriztagarriarekin hornitzeko exijitzen denez, hori egiteko gaituta dagoela bermatzea lortzen da gutxienez. Gainera, kontratuaren

objektu gisa energia berriztagarriaren hornidura eskatzen denez, eskakizun hori kontratua egikaritzen den bitartean proiektatzen da, eta gaitasun-baldintza kontratuaren bizitzan zehar mantendu behar da”.

Teknikoki MLBNren Ziurtapenari buruz arituko gara, IET/931/2015 Aginduaren arabera, maiatzaren 20koa, ITC/1522/2007 Agindua aldatzen duena, merkaturatutako energiak % 100 jatorri berriztagarria duela dioena, amaitutako urtean frogatzen baitu ziurtatuko enpresak hornitu duen energiaren jatorria halakoa dela; beraz, Madrilgo Erkidegoko Kontratuen Auzitegiak aipatutako ebazpenean berresten duen moduan, esperientziari loturiko irizpidea da eta enpresak exijitutako jatorria duen energia hornitzeko gaitasuna duela frogatzen du.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Lizitazioan parte hartzeko, beharrezkoa izango da Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ematen duen Ziurtapena eranstea, maiatzaren 20ko IET/931/2015 Aginduaren arabera, ITC/1522/2007 Agindua aldatzen duena, aurreko ekitaldian merkaturatutako energiak % 100 jatorri berriztagarria duela dioena.

Lizitazioaren proposamenean erantsi behar den ziurtapena eskaintza aurkeztu den egunean MLBNk eskuragarri duen azken urteari dagokiona izango da. Kaudimen irizpide hau a priori baldintza gisa eskatzen da, lizitazioa aurkeztu diren merkaturatzaileek jatorri % 100 berriztagarriko energia elektrikoa hornitzeko kaudimena dutela frogatzeko. Hau da, kontratuaren objektua eta, beraz, honetikiko lotura frogatuta dago.

Gainera, gehienez ere azken hiru urteetan egin diren eta kontratuaren objektu diren horniduren izaera bera edo antzekoa duten hornidura nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, eta, bertan, horniduren zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua adierazi beharko dira. Egikaritze handieneko urtean merkatutako urteko zenbatekoak kontratuaren batez besteko urterokoaren % 70 edo handiagoa izan beharko du.

Secretaría General Técnica
Servicio de Contratación



PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EL "ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE ENERGÍA ELÉCTRICA RENOVABLE PARA EDIFICIOS MUNICIPALES Y EQUIPAMIENTOS DEL AYUNTAMIENTO DE MADRID Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS (4 LOTES)", A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO. (EXPEDIENTE N° 135/2017/00252).

3. Valor máximo estimado del acuerdo marco.

De conformidad con el art. 88.8 del TRLCSP, el valor máximo estimado del acuerdo marco, incluida la posible prórroga, asciende a la cantidad de 82.641.923,18 euros (IVA excluido) con la siguiente distribución por lotes:

Lote 1:	4.133.066,75 euros
Lote 2:	45.969.589,64 euros
Lote 3:	30.975.850,43 euros
Lote 4:	1.563.416,36 euros

Acreditación de la solvencia técnica

Artículo 77.1 del TRLCSP: Para la acreditación de la solvencia técnica, se aportará la siguiente documentación:

- Certificación emitida por la Comisión Nacional de los Mercados y de la Competencia, de acuerdo con la orden IET/931/2015, de 20 de mayo que modifica la ITC 1522/2007, de que la energía comercializada es de origen 100% renovable.



Madrilgo Udalaren baldintza-agiriaren laburpena. Hau da hain zuzen ere errekurtsua jaso zuena, baina Madrilgo Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiak lehen, eta Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak gero, legezkotzat jo dute. Kontratuaren zenbatekoa (82 milioi euro) eta merkaturatutako energiaren % 100ak jatorri berriztagarri duela frogatzeko kaudimen teknikoari buruzko klausula ikusten dira.

4. % 100 berriztagarria den energiaren horniduraren sorta bat edo batzuk ezartzea

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak berariaz aipatzen du 99. artikuluan sortak ezartzeko aukera (ia derrigortasuna esan genezake):

99. artikulua. Kontratuaren objektua.

3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan.

[...]

4. Kontratazio-organoak, kontratuaren objektua sortaka zatitzen duenean, honako muga hauek ezarri ahalko ditu, betiere espedientean egoki justifikatuta:

- a) Hautagai edo lizitatzaille berak eskaintza aurkeztu ahal duen sorta kopurua mugatu ahalko du.
- b) Halaber, lizitatzaille bakoitzari adjudikatu ahal zaion sorta kopurua mugatu ahalko du.

[...]

Sortetako bat edo batzuk erreserbatu ahalko dira enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxieneko ehuneko bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programetarako, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erakundeentzat, aipatutako xedapenean ezarritako baldintzetan.

Sortak ezartzearen helburua zera da: enpresa gehiago kontratazio publikoan sartzea ahalbidetzea. Kontua da lehia irekitzea eta saihestea lizitazio publikoek enpresa gutxi batzuen eskuetan dagoen oligopolio bat osatzea. Hala, sortak ezartzean, enpresa txiki eta ertainei, tokiko enpresei eta ekonomia sozialeko enpresei kontratu publikoen esleipenean sartzea errazten zaie.

Kontzeptua erraza da: energia-horniduraren kontratu bakarra lizitatu eta esleitzen bada, litekeena da enpresa handiak izatea esleipendun, dela esleipenduna zehazteko baremoan prezioak duen pisuarengatik, edo, batzuetan, eskatzen den kaudimen teknikoarengatik. Tamaina txiki eta ertaineko enpresek, tokiko enpresek edo ekonomia sozialeko enpresek, ordea, oso aukera gutxi izango dituzte esleipendun izateko. Aldiz, kontratu hori hainbat sortatan zatitzen bada eta enpresa bakoitzak sorta batean soilik parte hartu edo bakar baten esleipendun izan ahal izatea mugatzen bada, aukera gehiago izango dituzte.

Arau aldaketa oso esanguratsua da; izan ere, kontratuen aurreko legediarekin ezin zen kontratu publiko bat zatitu, baina 9/2017 Legea indarrean sartu zenetik, posible izateaz gain, ahal den kontratu guztietan sortak egitea izan behar da araua.

Sortak zehazteak dakarren berritasuna eta interesa direla eta, beren alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen ditugu:

1. Sortak zehaztea arau orokorra da eta ez salbuespena. Izan ere, obra publikoaren emakida kontratuan salbu, kontratua sortatan zatitzen ez bada, kontratazio-organok behar bezala justifikatu behar du espedientearen zergatik ez duen zatitzen edo sortak egiten.
2. Legezkoa da sorten tamaina eta kopurua erabakitzea.
3. Legezkoa da enpresa bera aurkeztu daitekeen edo parte hartu dezakeen sorta kopurua mugatzea.
4. Legezkoa da enpresa bera esleipendun izan daitekeen sorta kopurua mugatzea.

Sortak ikuspegi juridiko eta kontzeptual batetik deskribatzeko, esan beharra dago SPKLk ulertzen duela kontratu bat sortetan zatitu behar dela, baldin eta prestazioa hainbat unitate funtzionaletan, kuantitatiboetan edo geografikoetan zatitu badaiteke, edo bereizita erabili, eman edo betearaz daitezkeen zatietan zatitu badaiteke.

Hau da, sortak ezar daitezkeela zatitu daitekeen kontratu-prestazioaren edozein alderdiri dagokionez. Eta adibideen bidez argitzeko, iturri % 100 berriztagarrietatik datorren elektrizitatea hornitzeko lizitazio batean gerta daitezkeen kasuistika batzuk azalduko ditugu:

- Elektrizitatearen hornidura-kontratua **sorta funtzionaletan** banatu daiteke, halako moldez non kultura arloaren menpekoak diren eraikinek sorta bat osatuko duten, kiroltakoek beste sorta bat, gizarte-zerbitzuetakoek beste bat, eta abar.
- Kasu batzuetan, kontratua **sorta geografikoetan** zatitzea posible litzateke; horrela, Administrazio publikoek, esaterako autonomia erkidegoek edo diputazioek, edota tamaina handiko Udalek, kontratua probintzien, auzoen, eskualdeen edo barrutien araberako sortetan banatu ahalko lukete, mugapen geografiko jakin bakoitzeko.
- Aipaturiko bi kasuetan, eta enpresa txiki eta ertainei sarbidea errazteko printzipioa betetzeko, kontua da sortetan egindako banaketa osatzea, eta horretarako mugatu behar da enpresa batek ere ez dezala sorta bat baino gehiagotan proposamenik aurkeztu, ezta sorta bat baino gehiagoko esleipendun izan ere.

Sortetan banatzea ETEen lehia eta parte-hartzea sustatzeko tresna den arren, eta betebeharrak bat den arren, zoritxarrez, gaur egun gero eta gehiago erabiltzen diren erosketa-zentralek ez dute sorten araberako banaketa egiten edo sorta horien tamainak ETEei sartzeara eragozten die.

Egoera honen aurrean, hornidura elektrikoak sortetan bereizteko dituen posibilitateak erraztu besterik ez dago, irizpide kuantitatibo, kualitatibo edo geografikoen arabera. Zentzu honetan, kokapen geografikoaren, aplikatutako tarifen, kontratatutako potentzia-tartean, sareetara duten konexioaren (behe-tentsioa edo goi-tentsioa), autokontsumo kolektiboan parte hartzearen eta abarren araberako hornidurak biltzen dituzten sortak egon daitezke aldi berean.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: % 100EAN ENERGIA BERRIZTAGARRIETATIK DATORREN ENERGIAREN HORNIDURAREN SORTAK

Kontratuaren objektua sortetan banatzen da.

Enpresa lizitzaileen parte-hartzea mugatu egiten da; beraz, enpresa lizitzaileek sorta bakar baterako proposamena aurkeztu ahalko dute eta, ondorioz, bi sorta edo gehiago lortu nahi dituzten enpresen proposamen guztiak baliogabetu egingo dira.



1. KASUA BANAKETA FUNTZIONALA.

- > **1. sorta.** Kultura arloaren menpeko eraikinak: 550.000 €
- > **2. sorta.** Kirol arloaren menpeko eraikinak: 605.000 €
- > **3. sorta.** Gizarte-zerbitzuen arloaren menpeko eraikinak: 310.000 €
- > **4. sorta.** Hezkuntza arloaren menpeko eraikinak: 750.000 €

2. KASUA BANAKETA GEOGRAFIKOA.

- > **1. sorta.** Askatasunaren auzoko argiteria publikoa: 250.000 €
- > **2. sorta.** Berdintasunaren auzoko argiteria publikoa: 350.000 €
- > **3. sorta.** Senidetasunaren auzoko argiteria publikoa: 325.000 €

5. Esleipen irizpideak

Esleipen irizpideak baldintza-agirietan idaztea eta jasotzea funtsezko unea da kontratu publikoen lizitazioan. Izan ere, enpresa lizitatuak proposamenak aurkeztu eta kontratazio-organoak irizpide horiek ebaluatu ostean, enpresa esleipenduna zein den erabakiko da eta, ondorioz, zein izango den kontratista eta zein izango den kontratuaren prestazioa bete beharko duena.

SPKLk dio esleipen irizpideek kalitate-prezio onenari erantzun behar diotela, eta “alderdi sozial eta ingurumenekoak izan ahalko dituztela kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean”. Beraz, irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak txertatzeak legezko berme osoa du eta SPKL17ren 145. artikuluan berariaz aurreikusten da:

145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean aldez aurretik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 148. artikulua araberako bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.

2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboaren arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikuluko honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1a Kalitatea -balio teknikoa barne-, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.

Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izan ahalko dira: berotegi-efektuko gasen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.



Kontratuaren ezaugarri sozialak, besteak beste, honako xede hauei buruzkoak izango dira: desgaitasuna duten pertsonen, beharrea dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, eta, oro har, desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; enplegu-zentro bereziekin eta laneratze-enpresekin azpikontratatzeko; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero-berdintasuneko planak eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea; lan- eta soldata-baldintzak hobetzea; enpleguaren egonkortasuna; kontratua egikaritzeko pertsona kopuru handiena kontratatzea; prestakuntza eta osasunaren eta laneko segurtasunaren babesa; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan; edo kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari buruzko irizpideak erabiltzea.

145. artikulua, azterketa juridiko sakona egin behar izan gabe, esleipenerako irizpide sozialen legezotasun osoa zehazten du, eta aurreko arau esparruarekin dagoen edozein eragozpen argitzen du:

- Esleipen irizpideen artean sar daitezkeen **gai sozialen eta ingurumen arloko gaien zerrenda zabal eta irekia** ezartzen da.
- “Kontratuaren objektuarekiko **lotura zuzena**” kontzeptua gainditu da, **lotura kontratuaren prestazioarekin berarekin ezarri behar delako**. Hala, arauak kontuan hartzen du eta azaltzen du lotura duela (eta baliozkoa dela) kontratu-prestazioan txertatuta dagoen edozein gai, edozein alderditan, bere bizitza-zikloaren edozein etapatan, baita bere substantzia materialaren parte ez direnean ere, ekoizpen prozesu espezifikotan, edo **ingurumen eta gizarte aldetik jasagarriak eta bidezkoak diren ekoizpen-, edo merkaturatze-moduei dagokienez**.
- “**Ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza**” kontzeptua gainditu da eta **“kalitate-prezio erlazio onena” kontzeptuak ordezkatu du**. Horrela, aurreko arau-esparruarekin oraindik ere gertatzen ziren interpretazio murriztaileak saihesten dira; izan ere, interpretazio horien arabera, irizpide sozialek traslazio ekonomikoa izan behar zuten eta, diruari dagokionez, eskaintza neurgarri hobea ekarri. Argudiaketa hau atzean utzi da.

Alor praktikoan, arren iradokitzen dugu klausula orokorrak, zehaztugabeak, subjektiboak eta egiaztatzeko zailak edo ezinezkoak ez idaztea. Aldiz, klausulak objektiboak izatea proposatzen dugu.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: ESLEIPEN IRIZPIDEAK

A. KONTRATUA EGIKARITZEARI APLIKATUTAKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOARI ETA ENERGIA BERRIZTAGARRI ETA JASANGARRIEI BURUZKO POLITIKEN ALDERDIAK

10 puntu emango zaizkie bere proposamen teknikoan kontratua egikaritzeari aplikatutako eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarri eta jasangarriei buruzko politikak eskura jartzen dituzten edo aplikatzeko konpromisoa hartzen duten enpresak. Horretarako, x puntu emango dira ondorengo azpi-irizpide bakoitzeko (hautatu behar da):

1. Instalazio fotovoltaikoak diseinatu eta legeztatzeari buruzko, autokontsumoari buruzko edo antzeko edukari buruzko prestakuntza-ekintza bat (gutxienez 20 ordu) diseinatzea eta ematea: 3 puntu.
2. Eraginkortasun energetikoari eta kontratu-motei buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintza bat (gutxienez 4 ordu) diseinatzea eta ematea: 3 puntu.
3. Pobrezia energetikoari buruzko eta hornidura elektrikoaren erabiltzaileen zaurgarritasunari aurre egiteko neurriei buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintza bat (gutxienez 2 ordu) diseinatzea eta ematea: 2 puntu.
4. Zaurgarritasun energetikoko egoeran dauden kontsumitzaileei zuzendutako jarduerekin elkarlanean aritzeko konpromisoa (gutxienez 20 orduko dedikazioa), honako hauei dagokienez: eraginkortasun energetikoko neurriak, ordainketa geroago egiteko planei buruzko informazioa, bonu sozialari buruzko informazioa eta energiaren kontratazioaren optimizazioari buruzko informazioa: 2 puntu.

B. ERANTZUKIZUN SOZIALEKO POLITIKAK

Gehienez 6 puntu emango zaizkie proposamen teknikoan bere kudeaketan eta antolamenduan enpresaren erantzukizun sozialeko politikak aplikatzeko konpromisoa hartzen duten enpresei. Horretarako, x puntu emango dira ondorengo azpi-irizpide bakoitzeko (hautatu behar da):



5. Kontratua egikaritzen duten langile guztiei aplikatu beharreko sektoreko hizarmena zorrotz betetzea: puntu 1.
6. Kontratua egikaritzeko lan merkatuan beharrez dauden pertsonak kontratatzea, bereziki desgaitasuna duten pertsonak, gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonak eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeak: puntu 1.
7. Enplegu Zentro Bereziak edota Gizarteratze eta Laneratze Enpresak azpikontratzea: puntu 1.
8. Kontratua egikaritutako duen lantaldean kontratu mugagabea duten langileen ehunekoa gutxienez % 80 izateko konpromisoa: puntu 1.
9. Kontratua egikaritutako duen langileetatik emakumeak gutxienez % 50 izateko konpromisoa: puntu 1.
10. Kontratua egikaritutako duen lantaldean Berdintasun Plana ezartzea edo kontratua egikaritzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko neurri zehatzak ezartzea, betiere aurrekontua, egutegia eta emaitzen memoria dutelarik: puntu 1.

6. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak arautzen ditu 202. artikuluan:

202. artikulua. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.

1. Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan adierazten badira.

Betiere, nahitaezkoa izango da hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat gutxienez ere ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian.

[...]

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea -horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da-; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, edo solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatzea; legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai

+

eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere; laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezzen exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxienezko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazaribiltate handiagoa egotea.

3. Baldintza-agiriekin zigorak ezarri ahalko dituzte, 192. artikuluan 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo ahalko du baldintza bereziok betetzea, 211. artikuluan f) letran ezarritako ondorioetarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko kausatzat tipifikatzen, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da baldintza-agirietan, erregelamenduz zehaztutako moduan, 71. artikuluan 2. apartatuko c) letran ezarritako ondorioetarako.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontrataste guztiei.

Egikaritze-baldintza berezietan buruzko azterketa egingo dugu labur-labur ikuspegi juridiko eta praktikoa batetik:

- Izaera soziala eta ingurumenekoa duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak txertatzeko aukerak eta legezketasunak ez dute inolako eragozpen juridikorik onartzen, eta SPKLk berariaz aipatzen eta babesten ditu.
- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak enpresa lizitatuak guztiek proposamenak aurkeztean inplizituki beren gain hartzen dituzten **benetako betebeharrak dira**, eta enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko ditu kontratua emateko unean.

- Esleipen irizpideekin gertatzen den bezala, SPKLk **gaiaren araberako zerrenda luze eta eredugarria** eskaintzen du, zabaldu eta moldatu daitekeena.
- Berriz ere aipatzen da egikaritze-baldintza bereziek **"kontratuaren objektuari lotuta egon behar dutela, 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik"**. Hau da, ez da kontratuaren objektuarekin lotura zuzena eskatzen; aitzitik, kontratuaren prestazioarekin berarekin lotura izan behar du.
- Nabarmendu behar da kontratuen legediak ezartzen duela **nahitaez adierazi behar dela, gutxienez, egikaritze-baldintza berezi bat**.

Prozeduraren fase honetarako proposatuko duguna da enpresa esleipendunari edo kontratistari exijitzea bere energia guztia jatorri guztiz berriztagarriarekin hornitu dezala kontratua egikaritzen den denbora osoan zehar. Horrela, eskakizuna ez da soilik kaudimen tekniko gisa planteatzen, baizik eta aldi berean lortu egiten dela bermatzea, kontratua egikaritzeko baldintza berezi gisa, eskakizun hori kontratua egikaritzen den bitartean proiektatzen dela. Ondorioz, gaitasun-baldintza kontratuaren bizitzan zehar mantendu behar da.

Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (KEAO), bi ebazpenetan, (160/2018 eta 161/2018, biak azaroaren 21ekoak) honen alde azaltzen da: Administrazio publikoen hornidura elektrikoako kontratuetan, merkaturatzaileek hornitutako elektrizitateak jatorri % 100 berriztagarria duela frogatzeak kontratua egikaritzeko baldintza berezia izan behar du.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Ingurumen-izaerako kontratua egikaritzeko baldintza berezi gisa ezartzen da merkaturatutako eta hornitutako energia elektrikoaren jatorria % 100 berriztagarria izatea kontratua egikaritzen den bitartean.

Sistema hori Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ematen duen Ziurtapenaren bidez frogatuko da, maiatzaren 20ko IET/931/2015 Aginduaren arabera, ITC/1522/2007 Agindua aldatzen duena, merkaturatutako energiak % 100 jatorri berriztagarria duela dioena.

Ziurtapen hori urtero aurkeztu beharko da eta klausula hau funtsezko kontratuzko baldintza bezala sailkatzen da; beraz, ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da eta/edo zehapenak ekarriko ditu, edo Administrazio publikoekin kontratatzekeo debekua ezartzea ekar lezake.



*Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares Suministro de Energía Eléctrica
durante 2019 y 2020, en Puntos Telemedidos gestionados por Adif Alta Velocidad
REF. INF-MC/17.0012.01*

En la presente licitación se solicita la contratación de:

- **EL SUMINISTRO DE ENERGÍA ELÉCTRICA**, con certificados de garantías de origen a partir de fuentes de energía renovables, en lo sucesivo ENERGÍA: para ello, se solicitarán 3 modalidades diferentes de oferta, que se detallarán a continuación.

8. PRESUPUESTO

El presupuesto estimado de este PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES, será de 419.439.485,42 € (no incluye el IVA). El valor del presupuesto estimado anterior incluye únicamente los costes de la ENERGÍA, pero no de los ATR.

9. GARANTIAS DE ORIGEN

En la presente licitación el comercializador que resulte adjudicatario de cada lote tiene la obligación de redimir garantías de origen (de generación a partir de fuentes de energía renovables) hacia el consumidor final ADIF –AV para el 100% del consumo de todos los puntos de suministro de cada lote del que sea adjudicatario. El incumplimiento de esta obligación, podría generar las penalizaciones al comercializador reflejadas en el apartado 11. Penalizaciones.



2019rako eta 2020rako energia elektrikoaren horniduraren baldintza-agiria, Adif Alta Velocidad-ek kudeatu-tako urruneko neurketa puntuetan.

419 milioi euroko aurrekontuarekin, kontratuaren objektua honela definitzen da: "Iturri berriztagarrietatik datorren energia-hornidura, jatorri-bermeen ziurtagiriekin". Eta betebeharren artean, jatorri-bermeak (energia-iturri berriztagarrietatik sortutakoak) erredimitzeko eskakizuna ikusten dugu, hau da, kontratua egikaritzen den denboran zehar kontsumo elektrikoaren jatorri berriztagarria frogatu behar dutela.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE REGIRÁN LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE ENERGÍA ELÉCTRICA DEL AYUNTAMIENTO DE MOAÑA CON IMPACTO AMBIENTAL MÍNIMO Y EJECUCIÓN SOCIALMENTE RESPONSABLE

I. CLÁUSULAS PARTICULARES

1. DEFINICIÓN DEL OBJETO DEL CONTRATO

Suministro de energía eléctrica para los edificios públicos y equipamientos municipales del Ayuntamiento de Moaña, con impacto ambiental mínimo y ejecución socialmente responsable (fomentando, en particular, la igualdad efectiva entre hombres y mujeres)

18. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN

Sí

Se consideran condiciones especiales del contrato las siguientes:

1	<p>Al menos, el 50% de las nuevas contrataciones o promociones para los puestos de trabajo cualificados, de responsabilidad o gerencia de la entidad (y subcontratas vinculadas), durante el período de ejecución del contrato deberán estar ocupados por mujeres.</p> <p>Para comprobar el cumplimiento de esta condición la entidad adjudicataria deberá presentar anualmente (a los 12, 24, 36 y 48 meses de la firma del contrato) un informe del cuadro de personal de la entidad con datos desglosados por sexo, así como de sus entidades subcontratadas. Este informe deberá estar firmado por las mujeres implicadas en esta medida. La entidad contratista podrá solicitar documentos de la Tesorería de la Seguridad Social que justifiquen los datos presentados en el informe</p>
2	<p>Al menos, el 50% de las nuevas contrataciones durante el proceso de ejecución del contrato deberán estar cubiertas por mujeres, se realizarán al menos un 10% con base a la reinserción laboral de mujeres en condiciones especiales (con discapacidad funcional, víctimas de violencia de género entre otras).</p> <p>Para comprobar el cumplimiento de esta condición a entidad adjudicataria deberá presentar anualmente (a los 12, 24, 36 y 48 meses de la firma del contrato) un informe del cuadro de personal de la entidad con datos desglosados por sexo, así como de sus entidades subcontratadas. Este informe deberá contener certificados individualizados de las mujeres afectadas por esta medida. La entidad contratista podrá solicitar documentos de la Tesorería de la Seguridad Social que justifiquen los datos presentados en el informe.</p>
3.	<p>Existencia de <u>medidas específicas de conciliación</u> familiar durante la duración del contrato para las personas trabajadoras con cargas familiares, dirigidas específicamente a hombres y familias de una única persona progenitora, como flexibilidad de horarios, jornadas reducidas, servicios de apoyo: comedores, guarderías o en su defecto, ayudas económicas que favorezcan la corresponsabilidad y la conciliación de la vida laboral y familiar.</p> <p>Para comprobar el cumplimiento de esta condición la entidad adjudicataria deberá presentar anualmente (la fecha de firma del contrato) un informe describiendo las medidas existentes así como el número de personas que hacen uso de esas medidas, desglosado por sexos. Dicho informe deberá estar firmado por las personas trabajadoras o quien las represente.</p>

↑

Moaño Udalaren (Pontevedra) baldintza-agiri oso interesgarria. Erreferentzia sozialak eta ingurumenekoak kontratuaren objektuan eta izaera sozialeko kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.

7. Kontrolatzeko eta egiaztatzeko sistemak

Gure ustez, klausula sozial eta ingurumenekoak betetzen direla egiaztatzeko fasea garrantzitsuen da kontratazio publiko arduratsuaren prozesu osoan.

Egia da gero eta Administrazio publiko gehiagok klausula sozialak eta ingurumene-koak txertatzen dituztela bere baldintza-agirietan, baina egia da ere zati txiki batek baino ez duela egiaztatzen eta frogatzen enpresa esleipendunak klausula horiek behar bezala betetzen ote dituzten.

Zailtasun honetatik abiatuta, kontrolatzeko eta egiaztatzeko sistema erraz eta eraginkor bat proposatzen dugu, kontratazio-teknikariei lana izugarri errazteko balio erantsia duena. Honako hau litzateke bere laburpena:

1. Baldintza-agiriei klausula objektiboak eransten zaizkie balio-judizioak saihesteko, eta horrela kontratazio-mahaiek errazago ebaluatzen dituzte irizpide sozialak eta ingurumenekoak.
2. Gizarte- eta ingurumen-klausula bakoitzarekin batera dagokion egiaztatzaile elkartua aurkezten da, eta horrek betetze maila kontrolatzeko eta frogatzeko sistema estandarizatu bat ematen du. Sistema horren deskribapena edo hitzez hitzeko testua beti sartu beharko da baldintza-agirietan bertan.
3. Egiaztatzaile elkartu hauek dokumentazio espezifiko bat aurkeztea eskatzen dute. Dokumentazio honek aukera ematen dio kontratuaren arduradunari klausula bakoitza benetan betetzen den egiaztatzeko; izan ere, aldez aurretik zehaztutako dokumentazioa aztertzea eta haren edukia esleipendunak bere gain hartutako betebeharrekin alderatzea baino ez da egin behar. Hau da, esleipen irizpide edo egikaritze-baldintza berezi ororekin batera, klausula horiek betetzen direla nola frogatuko den zehatz eta objektiboki adierazten duen testu bat aurkeztu behar da.
4. Frogaren zama enpresa esleipendunak hartzen du eta, gainera, enpresa horrentzat, beti eta edozein kasutan, gizarte- eta ingurumen-klausulak betetzen direla frogatzeko betebeharra zehazten da, eta baldintza-agirietan zehaztutako dokumentazio estandarizatuaren arabera egiteko betebeharra. Honek erraztu egingo du gero aztertzea eta frogatzea.

5. Azkenik, baldintza-agirietan ezartzen da gizarte- eta ingurumen-klausulak funtsezko kontratuzko betebeharrak direla, eta horiek ez betetzeak zehapen ekonomikoak ekarriko dituela berekin, eta kontratua deuseztatzea, kontratatzeke debekua ezartzea edo ordainketa geldiaraztea ere eragin lezakeela.

Sistema hau aplikatuz, erabateko gardentasuna eta tratu-berdintasuna ematen zaio prozedurari; izan ere, enpresa lizitatzaille guztiek aldez aurretik dakite zer dokumentazio aurkeztu beharko duten esleipendun suertatuz gero. Horretarako, funtsezkoa da baldintza-agirietan prozedura sistematiko eta homogeen bat ezartzea; horrela, mezu laukoitz bat bidaltzen diegu lizitatzailerei:

- › Klausulak modu eraginkorrean bete behar dira.
- › Esleipendunari dagokio betetzen direla frogatzea, aurretik zehaztutako dokumentazioa aurkeztuz.
- › Behar bezala egikaritzen direla egiaztatuko da, kontrolatzeko funtzioa berariaz esleituz.
- › Ez betetzeak ondorio larriak ekarriko ditu.

Beraz, administrazio-klausula partikularren agirietan esleipen irizpide bakoitzak eta izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bakoitzak egiaztatzaile elkartu bat izango du. Egiaztatzaile horrek esleipendunak nahitaez aurkeztu behar duen dokumentazioa adieraziko du, irizpideak eta baldintzak betetzen dituela frogatzeko, bai eta noiz aurkeztu behar duen ere.

Ondorioz, baldintza-agirietan kontrolatzeko eta egiaztatzeke sistemari buruzko klausula orokor bat sartzea proposatzen dugu, eta, horretarako, honako idazketa hau proposatzen dugu:

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTROLATZEKO ETA BETETZEN DELA FROGATZEKO SISTEMA.

1. Enpresa kontratista, kontratua erabat gauzatzearen arduradun bakarra den aldetik, bere gain hartu dituen esleipen irizpide guztiak eta gizarte- eta ingurumen-arloan kontratua egikaritzeko baldintza berezi guztiak betetzera behartuta dago.



2. Enpresa kontratistak modu eraginkorrean frogatu beharko du kontratua behar bezala eman dela bere proposamen teknikoan hitzartutako esleipen irizpideei dagokionez, bai eta izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintzei dagokionez ere. Horretarako, baldintza-agiri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du dagokion unean, betetzen dela egiaztatzeko.

3. Esleipen irizpideak eta izaera sozialeko eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bereziak funtsezko kontratuzko betebehartzat jotzen dira. Horiek ez betetzea oso larritzat joko da, eta, betetzen ez badira, kontratazio-organoak honako aukera hauek izango ditu:

- Kontratua suntsiaraztea ez-betetze errudunagatik, eta horrek berekin ekar lezake edozein lizitazio prozedura publikotan lizitatzeko desgaikuntza bi urtez.
- Kontratua egikaritzen jarraitzea baina zigor bat ezartzea, kontratazio-organoak larritasunaren arabera kalkulatu beharko duena eta gehienez ere kontratuaren prezioaren % 10era artekoa izan daitekeena.
- Kontratuen luzapena ez adostea, enpresa esleipendunak kontratua egikaritzeko baldintza bereziak edo esleipenerako irizpide sozialak larriki bete ez balitu.

4. Kontratuaren arduradunak edo jarraipen-unitateak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu beharko du, eta ebaluatu esleipen irizpideekiko eta kontratistak bere gain hartutako izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bereziakiko egokitasuna eta adostasuna. Bete ezean, jakinarazi beharko du eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatu beharko du.

% 100ean jatorri berriztagarria duen energiaren egiaztatzailea

Auzi nagusiari dagokionez, hau da, kontratua egikaritzen den bitartean iturri % 100 berriztagarrietatik eratorritako energia hornitu behar izateari buruzko egikaritze-baldintza bereziari dagokionez, baldintza-agirietan behar bezala adierazi beharko da enpresa esleipendunak aurkeztu beharko duela, aldez aurreko errekerimendurik gabe eta dagokion epean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak emandako Ziurtapena, maiatzaren 20ko IET/931/2015 Aginduaren arabera, ITC/1522/2007 Agindua aldatzen duena, merkaturatutako energiak % 100 jatorri berriztagarria duela dioena.



Certificado

UniEléctrica certifica que la energía consumida por:

Ayuntamiento de Cercedilla

Es de procedencia 100% renovable, avalado por la CNMC
(Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia)

En Córdoba a 04 de diciembre de 2015



AYUNTAMIENTO DE
CERCEDILLA



UniEléctrica®
la energía que quieres

